

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA

PRESIDENCIA

Azterlan eta Lege Araubide
Zuzendaritza
Prospekzio Soziologikoen Kabinetea

Dirección de Estudios y
Régimen Jurídico
Gabinete de Prospección Sociológica

EUSKAL SOZIOMETROA 21

2003ko ekaina



http://www1.euskadi.net/estudios_sociologicos

Aurkibidea

SARRERA	1	B - JARRERA POLITIKOAK	69
LABURPENA	7	• Politikarekiko interesa.....	70
ZEHAZTASUN TEKNIKOAK	11	• Alderdi politiko batengandiko gertutasuna	72
BIBLIOGRAFIA	13	• Ezker-eskuin ardatza	74
A – GAIA: EAEKO TALDE MINORITARIOEN- GANAKO JARRERAK	15	• Euskal Herriko-Espainako ardatza.....	76
• A1– Talde minoritarioenganako jarrerren dimentsioak.....	16	• Independentismoa	78
○ Deskribapena	17	• Buruzagi politikoak baloratzea	80
○ Bizikidetzeta hobetzeko politika publikoak.....	21	C - EGOERA BALORATZEA	83
○ Immigranteak murrizketez onartzea	29	• Daraman bizimoduarekiko poztasuna.....	84
○ Kultura anitzeko optimismoa.....	34	• Gaur egungo bizitza duela bost urtekoarekin konparatzea ...	86
○ Eragozpenak	38	• Egoera pertsonalarekiko itxaropenak hurrengo 5 urteetarako	88
○ Errua gutxiengoei botatzea.....	41	• Langabeziaren egoera nola ikusten den.....	90
○ Sarrera erraztea	46	• Langabeziaren egoera familian nola ikusten den	91
○ Kultura asimilazioa	50	• Langabeziaren egoera inguruan nola ikusten den	92
• A2 - Talde minoritarioetakoa izatea eta horiek onartzea	53	• Langabeziaren egoera nola ikusten den enpresari dagokionez	93
○ Talde minoritarioetakoa izatea	54	• Euskadiko arazoak	94
○ Talde minoritarioak onartzea.....	56	• Egoera orokorra nola ikusten den.....	97
• A3 - EAEko pertsonen tipologia, talde minoritarioen- ganako jarrerren arabera.....	66	• Administrazioarekiko poztasuna	98

Sarrera

Helburuak

Txosten hau 2003. urtean Euskadiko soziometroen serieari egiten zaion lehenengo ekarpena da, 21. alea kasu, eta **Euskadiko gizarte errealtatearen erretratua** osatzen du.

Helburua, EAEko biztanleak nolakoak garen jakiteaz gain, nola eboluzionatzen dugun jakitea da, bai eta Estatuko eta Europar Batasuneko beste herrialdetako bizilagunekin konparatuta ditugun parekotasunak eta aldeak ere. **Deskribapeneko, eboluzioko eta konparaketako** ikuspegi horrek gidatuko ditu honako orrialdeak.

Fidagarritasuna eta baliozkotasuna

Aztertutako datuen fidagarritasuna eta baliozkotasuna bost baliabide metodologikoen oinarriaren bidez bermatuta dago:

- Euskal Autonomia Erkidegorako (hemendik aurrera EAE) eta lurralde bakoitzerako lagin **oso adierazgarria** erabiltzea.
- Galdetegiko galderen arteko asko estandarizatzea nazioarteko eta Estatuko beste ikerketa batzuei dagokienez, zilegitasun zientifikoa ziurtatuta dagoelarik.
- Inkesta egindako pertsona bakoitzaren banakako informazioa aberastea testuinguruko informazio erantsiaren laguntzaz, bizitokiko habitatari dagokionez.
- Inkestaren azkeneko emaitzen eta argitaratutako beste kanpoko erreferentzia objektiboen arteko ezberdintasunen ebaluazioa, datu egiaztagarriak dauden bitartean. 2001eko maiatzean egindako autonomia hauteskundetako botoaren banaketa, adina, sexua, Euskal

Herrikotze maila, ikasketa maila eta lan egoeraz ari gara, hain zuzen ere. Emaitzen konparazioa egiaztatua izan da EAERI eta lurralde bakoitzari dagokionez.

- Inkestako datuak aldagai soziodemografikoak eta jarrerakoak kontuan hartuta segmentatu ditugu, hainbat gizarte-kolektiboren artean dauden ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak kontuan hartuta.

Datuen egitura eta aurkezpena

Txostenaren egitura eta aurkezpena, B eta C ataletan, *informazio blokeak* deritzogunean oinarritzen da, *diskurtso lineal klasikoaren* aldean. Izan ere, txostenaren muina orrialdeak zenbatuta eskaintzen da: esparru bakoitzaren barruan hainbat adierazle soziologiko daude, eta adierazle bakoitza informazio bloke bat da, gehienez hiru orrialde dituena:

- Guztira: adierazle soziologikoaren emaitza orokorrak, bai eta aurreko azterketetako datuekiko konparaketa ere —posible bada—. Batzuetan konparaketa geografikoak ere egiten dira.
- Kolektiboka: populazioaren erantzun orokorrak segmentatzea, soziometro honen barruan, adierazle soziologiko bakoitzean ezberdintasun gehien agertzen dituzten kolektiboen arabera, ezberdintasunak esanguratsuak izanez gero.
- Konparaketa geografikoa: beste herrialde batzuei buruzko azterketen datuekiko konparaketa.

Orrialde bakoitzean datu taula bat, deskribatzeko aipamen laburrak eta, ilustratzeko grafiko bat (batzuetan) aurkezten dira.

Taula batzuetako beheko partean indize orokor bat azaltzen da eta balio garrantzitsuena. **Indize** horien arteko batzuk galdera baterako erantzunaren

zenbait kategorien kenketa besterik ez dira (adibidez: *poztasun balantzea* administrazio instantzia bakoitzarekiko *pozik* daudenen eta *pozik* ez daudenen kenketa da). Indize horien abantaila konparatutako kolektiboen Ed/Ede kopuru ezberdina indargabetzea da.

Txosteneko A1 zatian Europako azterketa baten eskema erabili da: *Attitudes towards minority groups in the European Union*, European Monitoring Centre on Racism and Xenophobia izeneko erakundearen enkarguz 2001ean egindakoa. EAEn jendeak talde minoritarioekin (beste arraza, erlijio edo kulturetako pertsonak osatutako taldeak, bertan edo kanpoan jaioak, neurri batean edo bestean homogeneoak eta/edo kopuruz handiago edo txikiagoak direnak) dituen jarrerak EBko jarrerekin konparatu ahal izateko galdetegi bera erabili da. Europako ikerketan bezala, osagai nagusien azterketa faktoriala ere egin da, aldagai guztiak hartuta, aldagai horiek egitura ezkuturen bat duten asmatzeko. Azkenean jokabidea eta jarrerak hoberen azaltzen dituzten zazpi faktoreak aukeratu ditugu eta banan-banan aztertuko ditugu bakoitzaren aldagaiak.

Ahal dugun guztietan, orrialde berean, kolektiboan arabera sartzen ditugu emaitzak, bai eta guztizko emaitzak eta egun EB osatzen duten 15 herrialdeen konparaketa geografikoa ere.

Zazpi taldeetakoak ez diren beste galdera batzuk ere sartzen dira (A2 parte), interesgarria begitandu zaigulako aztertzea. Batzuk talde minoritarioen gainekoak dira (beste arraza, erlijio edo kulturetako pertsonak osatutako taldeak, hemen edo kanpoan jaiotakoak) eta beste batzuk immigranteen gainekoak (legezkoak edo legez kanpokoak), immigranteak Europar Batasunetik (EB) kanpoko herrialdeetatik datozenean.

Galak

Gure azterketaren benetako xedea osatzen dute eta tauletako errenkadetako galderetan ikus daitezke, hain zuzen ere:

- A.– GAIA: EAEKO TALDE MINORITARIOENGANAKO JARRERA POLITIKOAK
 - **Gutxiengoenganako jarreraren dimentsioak:** Faktoreen azterketaren bidez lortutako faktoreak osatzen dituzten aldagaiak deskribatzea.
 - **Bizikidetza hobetzeko politika publikoak:** EAEko biztanleek hainbat politika publikori buruz dituzten jarrerak.
 - **Immigranteen onarpen mugatua:** immigranteak onartzearen maila, jatorriaren eta emigratzeko arrazoen arabera.
 - **Kultura anitzeko optimismoa:** EAEn kultura eta erlijio ezberdineko pertsonak izateari buruzko jarrerak.
 - **Eragozpenak:** beste arraza, erlijio edo kulturetako pertsonak egoteak EAEko populazioari eragozpenik eragiten dion jakitea.
 - **Errua gutxiengoei botatzea:** agintek talde minoritarioetako pertsonen ematen dieten tratuari buruzko eta bizi mailaren galerari buruzko jarrerak.
 - **Sarrera eta familia berriz elkartzea erraztea:** immigranteen sarrera eta naziotasuna eskuratzea errazteari buruzko jarrerak, bai eta senide hurbilenak ekartzeko aukerari buruzkoak ere.
 - **Kultura asimilazioa:** beste herrialdeetatik etorritako pertsonen kulturari eta erlijioari buruzko jarrerak.
 - **Talde minoritarioetako izatea:** Euskal Autonomia Erkidegoko gizarteak talde minoritarioen batekoa sentitzen den; familian beste herrialdeko, erlijioeko eta abarreko pertsonarik dagoen; talde horietako pertsonen kopurua eta bizi baldintzak nola ikusten diren; gure gizartean eskubide osoko kide gisa onartzen diren ala ez.
 - **Talde minoritarioak onartzea:** ezberdintasuna onartzea ala ez; zenbait gorabehera izanez gero hartu beharko liratekeen neurriak immigranteak aberriratzeko.
 - **Tipologia:** pertsona motak, talde minoritarioenganako jarreraren arabera.

- B.- JARRERA POLITIKOAK

- **Politikari buruzko interesa:** politikari buruz adierazitako interesaren maila.
- **Alderdi politikoekiko gertutasuna:** alderdi politikoekiko gertutasun maila.
- **Ezker-eskuin ardatza:** norbere burua eskalan ezartzea, eskalako muturrak *ezker muturra* eta *eskuin muturra* direlarik.
- **Euskal Herriko-Espainako ardatza:** norbere burua eskalan ezartzea, eskalako muturrak *Euskal Herriko hutsa* eta *Espainako hutsa* direlarik.
- **Independentismoa:** Euskadiren independentziarekiko adostasunaren edo desadostasunaren maila.
- **Buruzagi politikoak balioztatzea:** buruzagi nagusiak balioztatzea 0-10 eskalarekin bat.

- C.-EGOERA BALORATZEA

- **Daraman bizimoduarekiko poztasuna:** norberak daraman bizimoduarekin pozik egotea ala ez.
- **Gaur egungo egoera duela bost urtekoarekin konparatzea:** egungo egoera pertsonala duela bost urtekoarekin konparatuta hobea den ala ez.
- **Egoera pertsonalarekiko itxaropenak hurrengo bost urteetarako:** bost urte barru egoera pertsonala hobetuko den ala ez.
- **Langabezia dela eta egoera pertsonala nola ikusten den:** azken bost urteetan langabezian egon den ala ez.
- **Langabeziaren egoera familiar nola ikusten den:** azken bost urteetan familiako norbait langabezian egon den ala ez.
- **Langabezi egoera ingurunean nola ikusten den:** lagun taldeko norbait azken bost urteetan langabezian egon den ala ez.
- **Langabeziaren egoera nola ikusten den norbere enpresari dagokionez:** azken bost urteetan norbere enpresak langileen murrizketarik izan den ala ez.
- **Euskadiko arazoak:** Euskal Autonomia Erkidegoko bi arazo garrantzitsuenak berez aipatzea.

- **Egoera orokorra nola ikusten den:** Euskal Autonomia Erkidegoaren egoera politikoa, soziala eta ekonomikoa kalifikatzea.
- **Administrazioarekiko poztasuna:** norberaren Udalarekin, Foru Aldundiarekin, Eusko Jaurlaritzarekin, Espainiako Gobernuarekin eta Europar Batzordearekin pozik egotea ala ez.

Euskadiko arazoak:

Behin inkesta egindako pertsonak adierazitako arazo guztiak bilduta, hamar kategoriatan kodifikatzen da, eta horien arteko batzuen edukiak jarraian adieraziko dira, landa lana egin zuen taldeak bildu zituen antzera.

1. Terrorismoa eta indarkeria: ETA, indarkeria, bakerik eza, Estatu terrorismoa, kale indarkeria, eta abar.
2. Gatazka eta egoera politikoa Euskadin: ezberdintasun politikoak, krispazio soziala, euskal gatazka, independentziarik eza, presoak hurbiltzea, Batasuna legez kanpo uztea, eta abar.
3. Langabezia: langabezia, lanik eza, desenplegua.
4. Arazo ekonomikoak eta desberdintasun sozialak: lana eta laneko baldintza eskasak (zabor kontratuak, ezegonkortasuna, eta abar), arrazismoa eta beste zenbait diskriminazio, lan istripuak, bizitzaren garestitasuna, pentsio txikiak, beharra dutenen kolektiboentzako laguntza urriak, pobretasuna, zaharrentzako egoitza gutxi, eta abar.
5. Drogak.
6. Etxebizitza: garestitasuna eta eskasia.
7. *Prestigen* marea beltza eta ingurumena.
8. Immigrazioa: immigrazioa, immigranteak, immigrazioa asimilatzea, beltz asko dagoela, geroz eta immigrante gehiago daudela, eta abar.

9. Delinkuentzia eta hiritarren segurtasunik eza: gazteen delinkuentzia, delinkuentzia, lapurretek eragindako segurtasunik eza, immigranteek eragindako delinkuentzia, eta abar.
10. Beste arazoak: lan istripuak, hezkuntza, aparkalekuak, tratu txarrak, eta abar.

Segmentatzeko aldagaiak

Beste alde batetik, segmentatzeko aldagai sozio-demografikoak eta jarrerari buruzkoak ditugu, hau da, inkestako gizarte-kolektiboak bereizten dituzten galderak eta **tauletako zutabeetan** azaltzen direnak (etzanean azaltzen dira eratu diren azpi-kolektiboak), dagokion aldagai soziologikoari ezberdintasun esanguratsurik eragiten badiote:

- Lurraldea: *Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa*.
- Sexua: *gizonezkoa eta emakumezkoa*.
- Adin taldeak: *18-29, 30-45, 46-64 y >=65*.
- Udalerriaren tamaina: *txikia* (<10.000 biztanle), *ertaina* (10.000-120.000 biztanle) eta *hiriburua* (Gasteiz, Bilbo eta Donostia).
- Jatorria: *etorkina* (EAEtik edo Nafarroako Foru Erkidegotik kanpo), *bertakoa*, *familia etorkina* (erkidego bietako batean jaioa eta gurasoak immigranteak ditu), *bertakoa*, *familia mistoa* (erkidego bietako batean jaioa eta aita edo ama immigrantea du), eta *bertakoa eta bertako familia* (erkidego bietako batean jaioa, bai eta gurasoak ere).
- Ikasketa maila: *lehen ikasketak baino gutxiago, lehen ikasketak, bigarren mailako ikasketak eta goi mailakoak*.
- Lanbide nagusia: *lanean, langabezian, etxeko lanak, ikasten eta jubilatua*.
- Hautemandako klase soziala: *baxua* (klase ertain baxua edo langilea), *erdikoa* (erdiko-erdikoa) eta *altua* (goiko erdiko klasea).

- Euskararen jakintza: *ez* (ez daki ezer esaten), *zerbait* (zenbait hitz daki edo zerbait hitz egin dezake) eta *bai* (nahiko ondo edo zuzen hitz egiten daki).
- Euskal Herriko-Espainako ardatza: *batez ere Euskal Herrikoa* (Euskal Herriko hutsa eta Espainakoa baino Euskal Herrikoagoa), *Euskal Herrikoa bezain Espainakoa eta batez ere Espainakoa* (Euskal Herrikoa baino Espainakoagoa eta Espainako hutsa).
- Politikarekiko interesa: *batere ez, handirik ez, nolabaitekoa, handia*.
- Ezker-eskuin ardatza: *ezkerra* (ezker muturra + ezkerra + zentro ezkerra), *zentroa* (zentroa), *eskuina* (eskuin muturra + eskuina + zentro eskuina) eta *Ed / Ede*.
- Begikotasun politikoa: *begikotasunrik handiena eragiten dizun alderdia* (EAJ, EA, EB, BATASUNA, Aralar, PP, PSE, UA), *batez ere ez edo guztiek berdin eta Ed / Ede*.

Txostenaren egitura

Aurkezpen horren ostean, emaitzen sintesi bat gaineratzen da, azterketaren fitxa teknikoa eta, ondoren, jadanik aipatutako eduki esparru guztiak. Azkenik, bibliografia osagarria eskaintzen da, inkestan erabilitako galderen arteko baten jatorria jakin nahi duenarentzat.

Laburpena

Puntuz puntu

ZEIN JARRERA DAUDE EAE-N TALDE MINORITARIOEI BURUZ?

Gaur egun EAEn dauden talde minoritarioenganako jarrerak, neurri handi batean, hainbat faktoreren menpe daude. Hona hemen faktore nagusiak: adina, egindako ikasketen maila eta pertsona horrek ezkerre-eskuina ardatzean non kokatzen duen bere burua. Sexuak ez du eraginik talde minoritarioenganako jarreretan.

Hortaz, jarrera negatiboak adinarekin bat handitzen direla ikus dezakegu. Ikasketa mailarik handiena duten pertsonak maila txikiagoak baino jarrera positiboagoak dituztela esaten dute. Eskuindar sentitzen diren pertsonak ezkerrekoen baino jarrera negatiboagoak adierazten dituzte.

Baita ikusten da Araban, etorkin proportzio handiena duen lurraldea delarik, jarrera baikorrak agertzen dituztenen proportzioak beste bi lurraldeetan baino txikiagoak direla.

Edozelan ere, *iritziak* biltzen direla gogoratu behar da, eta kasu askotan *politikoki zuzentzat* jotzen diren erantzunak ematen direla.

Bizikidetzaren hobetzeko politika publikoak dimentsioan, EAEk adostasun-tasarik handiena dauka Suedia, Luxenburgo, Finlandia eta Danimarkarekin batera.

Immigranteak onarpen mugatuari dagokionez, EAEko populazioak atzerrikak datozen pertsonenganako irekia dela esaten du, eta Suedian, Espainian eta Danimarkan esandakoaren ildoan dago.

EAEko pertsonak, oro har, Finlandiako, Espainiako eta Suediako pertsonekin batera, optimistagoak dira pluraltasunak gizartea aberastearen inguruan.

Beste erlijio, arraza edo nazionalitateetako pertsonak izateak ez dio eguneroko bizitzari eragozpenik eragiten (horri buruz egindako galderei emandako erantzunekin bat), Luxenburgo, Finlandia eta Espainian bezala.

Behin *Errua gutxiengoei botatzea* dimentsioko galdegaiak aztertuta, EAE beldur xenofobo gutxiak duten herrialdeen artean dagoela esan dezakegu, Espainiarekin eta Italiarekin batera.

Gizarteratu eta populazioko besteekin berdindu nahi duten pertsonen bidea erraztearen aldekoak direla esaten dute EAEko hiritar gehienek.

Talde minoritarioetako kideei buruz ari garelarik, norberaren kultura bertan behera uzteko eta gehiengoarena bereganatzeko exijentzia txikiagoa da EAEn (Espainian eta Italian bezala) Europako herrialde askotan baino. Europako batez bestekoarekin bat dator, ordea, legeak errespetatzen ez dituzten erlijio edo kultura jarduerak bertan behera uztea exijitzen duten euskal pertsonen proportzioari dagokionez.

EAEko populazioaren gehiengoak (%74) gizarteko gehiengo baten kidea dela esaten du (%5ek bakarrik diote talde minoritario baten kideak direla). Bestalde, %12k beste herrialde bateko senideren bat du, %4k beste erlijio batekoa eta %6 beste kultura batekoa.

Gainera, populazioaren %44k gizarte honetan talde minoritarioko pertsona *asko baina ez gehiegi* bizi direla adierazi dute, eta %20k *gehiegi* direla. %43k gizarte batek horrelako pertsonak onartu ahal izateko gehieneko kopuru bat duela pentsatzen dute. Alde batetik, ia erdiek (%48) ez dute uste talde minoritarioek Gizarte Segurantzari ematen diotenik jasotzen dutena baino gehiago eta, bestalde, ez dute uste guztiek gure gizartean eskubide osoko kideak izan nahi dutenik.

Populazioaren gutxiengoak bakarrik (%15) pentsatzen du EBtik kanpoko immigranteak eskubide osoko kidegaitzat onartuak izateko ezberdinegiak direla. %14k, aldiz, haien erlijio jarduerak gure bizimoduarentzat arriskutsuak direla uste dute.

Behin estatistika azterketa egokia eginda, ikus dezakegu EAEko populazioa lau taldetan banatuta dagoela, talde minoritarioei buruz dutela esaten duten jarrerari dagokionez: oso tolerantak (%10,5), nahikoa tolerantak (%48,4), tolerante samarrak (%35,2) eta ez batere tolerantak (gainerako %5,9).

ZEIN JARRERA POLITIKO DITUZTE EAE-KO BIZTANLEEK?

Politika EAEko biztanleen %38rentzat da interesgarria, alderdienganako hurbiltasuna askoz ere txikiagoa bada ere (%18).

Askoz ere jende gehiagok esaten du ezkerrekoa (%45) dela eskuinekoa baino (%8), eta Euskal Herriko sentitzen direnak (%31) Euskal Herriko bezain Espainako sentitzen direnak baino gutxiago dira (%36), bai eta lehenetsunez Espainako sentitzen direnak baino ere (%7).

Independentziarekiko adostasunak %22 biltzen du, desadostasunak %32 eta %33 *egoeraren arabera egongo lirateke ados edo ez*.

Buruzagi politikoaren artean, Ibarretxe **Lehendakariak** beste inork ez du lortzen gaitzeko besteko nota (5.2). Begoña Errazti eta Javier Madrazo (3.9) eta Patxi Zabaleta (3.5) datozkio atzetik.

NOLA IKUSTEN DA EGOERA?

EAEko biztanleen %87 dago bere bizimoduarekin oso pozik (%24) edo nahikoa pozik (%63) eta kasik erdiak (%49) uste du duela bost urtetik hona ia ez dela aldatu. Etorkizunari begira %50ek espero dute hobetzea.

Azken bost urteetan zehar lanean ari diren pertsonen %64 ez da langabezia egon, %55ak ez du bere familiako inor egoera horretan izan eta %44 ezta bere lagun minik ere. Bere enpresan ez dute langileen murrizketarik jasan %78k.

Terrorismoak eta indarkeriak kezkatzen dute gehien Euskadiko gizartearen (%66), eta gero langabeziak (%49).

Egoera pertsonalari dagokionez, EAEko herritarren arteko %87 oso pozik edo nahikoa pozik daude euren bizimoduarekin. Etorkizunari dagokionez, erdiak bizitza hobetzea espero du, %37k berdin jarraitzea eta %7k okertu egingo zaiela uste dute. EAEko biztanleen arteko %29k azkeneko bost urteotan gutxienez behin langabezia egon direla adierazi dute.

EAEko gizarteak ontzat jotzen du ekonomiaren **egoera** (%66), eta gizartearena (%55). Hala ere, %18k besterik ez du pentsatzen egoera politikoa ona denik.

%67 pozik daude Udalarekin, %66 Foru Aldundiarekin, %62 Eusko Jurlaritzarekin, %28 Espainiako gobernuarekin, eta %34 Europar Batzordearekin (Europar Gobernuarekin).

Beste esparru geografiko batzuei dagokienez

EAEEn nahiz Espainiako Estatuan, langabezia eta terrorismoa dira arazorik larrienak populazioen ustetan, baina ordena ezberdina da: Estatu mailan langabezia da lehenengoa, eta EAEen terrorismoa eta indarkeria.

EBko herrialdeei dagokienez, EAEko biztanleek Europako batez bestekoak baino poztasun apur bat gehiago dute, bizitza azkeneko bost urteotan zehar okerragora joan dela pentsatzen dutenen proportzioa txikiagoa da, eta baikorragoak dira etorkizunari dagokionez.

Aurreko urteel dagokienez

Politikak eragiten duen **interesaren** maila, alderdiengandiko gertutasunaren maila eta ezkertartasunaren maila inoiz baino handiagoak dira, igoera ikusgarririk ez bada izan ere.

Euskadiren **independentziarekiko** adostasuna 2002ko maila berean mantentzen da: %22an.

Ibarretxe lehendakariak jarraitzen du hoberen baloratzen den buruzagia izaten, 5.3 puntu zituen eta 5.2 ditu orain, 2000. urtean jasotako antzeko balioak lortuta. Joan den urteari dagokionez, Begoña Erraztik bakarrik jarraitzen du berdin. Zazpi buruzagik zenbait hamarren irabazi eta beste bost buruzagik behera egin dute. Xabier Arzalluz, José María Aznar eta Jaime Mayor Oreja politikariek izan dituzte beherakadarik handienak.

EAEko populazioaren %38k azkeneko bost urteetan bizitza hobetu zaiela uste dute, eta %12k okertu zaiela.

Administrazioarekiko poztasunari dagokionez, beherakada txiki bat izan da Udalarekiko, Foru Aldundiarekiko eta Eusko Jaurlaritzarekiko poztasun mailari dagokionez. Beherakadarik handiena Espainiako gobernuak jaso du, ordea, eta balantze negatiboa 1990ekoaren antzekoa da.

Azken buruan

EAEko populazioak bizikide dituen **talde minoritarioei** buruz jarrera oro har positiboak dituela adierazten du. %5,9 bakarrik dira beste arraza nazionalitate edo erlijietakoei dagokienez batere toleranteak ez direla argi eta garbi esan daitekeenak.

Egoera EBko beste herrialde batzuetakoarekin konparatuz gero, EAE tolerantziarik handiena dutenen artean kokatzen da, bai eta pertsona ezberdinei beldur gutxien dietenen herrialdeen artean ere.

EAEko egoera pertsonala, soziala eta ekonomikoa onak dira populazioaren ustez. Hala ere, egoera politikoa txarra dela sumatzen da. Konfiantza eta poztasuna dago erakunde politiko nagusiei dagokienez: Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta Udalak. Populazioak lehendakariari besterik ez dio ematen gainditzeko adinako nota.

Zehaztasun teknikoak

Informazio bilketa 2003ko apirilaren 1a eta 15a bitartean egin zen –biak barne- galdesorta egituratu eta itxia erabiliz, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetarako lagin adierazgarri bati etxean egindako banakako elkarrizketen bidez.

Lagina, 18 urte edo gehiagoko biztanleriari zuzendua, honela banatu zen: 610 pertsona Araban, 1261 Bizkaian eta 968 Gipuzkoan, beraz, 2839 pertsona elkarrizketatu ziren guztira. Gizabanakoen hautaketa prozedura polietapiko eta estratifikatuaren bidez egin zen, 20na inkestaz osaturiko ausazko ibilbideak erabiliz –214 laginketa abiapunturekin–, ondoren pertsonak sexuaren, adinaren eta lan egoeraren arabera kuoten bidez aukeratuz. Emaitzak biztanleriaren oinarriaren eta 2001eko Hauteskunde Autonomikoetako boto oroimenaren arabera haztatu dira.

Ikerketaren diseinua Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak eta Prospekzio Soziologikoen Kabineteak elkarlanean egindakoa da eta emaitzen azterketa eta txostenaren idazketaren ardura berriz Prospekzio Soziologikoen Kabineteari dagokio soilik. Informazio bilketa Askatasunaren hiribidea, 17-19, 2004 Donostia helbidean dagoen Ikertalde enpresak egin zuen.

2839 pertsonako lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa, erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria, +%1,88koa da EAE osorako, %95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik.

Inkesten %58,3 telefono bidez kontrolatu da eta %4,3 etxean bertan kontrolatu dira. Horrez gain, jasotako galdetegi guztietan kontrol informatiko egokiak egin dira –logika, koherentzia eta heinari buruzkoak–.

Bibliografia

Jarraian, erabilitako ikerketa eta estatistiken arteko batzuk zerrendatuko dira, kontu tekniko-metodologikoetarako nahiz beste erakunde geografikoen datuekin konparatzeko:

- EUROPEAN COMMISSION (2001). Eurobarometer Public Opinion in the European Union. Report Number 55. Brusela. Directorate-General Press and Communication.
- EUROPEAN MONITORING CENTRE ON RACISM AND XENOPHOBIA (2001). *"Attitudes towards minority groups in the European Union"*. Viena, Austria. SORA.
- EUROPEAN MONITORING CENTRE ON RACISM AND XENOPHOBIA (2001). *"Attitudes towards minority groups in the European Union"*. Technical Report. Viena, Austria. SORA.
- EUSTAT (2000). *Estadística de movimientos migratorios*. Vitoria-Gasteiz: Eustat.
- EUSTAT (2001). *Nomenclaturas y códigos*. Vitoria-Gasteiz: Eustat.
- EUSTAT (2001). *Callejero de la C.A. de Euskadi*. Vitoria-Gasteiz: Eustat.

A - Gaia: EAEko talde minoritarioenganako jarrerak

A1 - Talde minoritarioenganako jarreraren dimentsioak

- Deskribapena
- Bizikidetzaren hobetzeko politika publikoak
- Immigranteen onarpen mugatua
- Kultura anitzeko optimismoa
- Eragozpenak
- Errua gutxiengoei botatzea
- Sarrera erraztea
- Kultura asimilazioa

A2 - Talde minoritarioetako izatea eta horiek onartzea:

A3 - EAEko pertsonen tipologia, talde minoritarioenganako jarreraren arabera

A1- Talde minoritarioenganako jarreraren dimentsioak

- **Deskribapena**
- **Bizikidetzaren hobetzeko politika publikoak**
- **Immigranteen onarpen mugatua**
- **Kultura anitzeko optimismoa**
- **Eragozpenak**
- **Errua gutxiengoei botatzea**
- **Sarrera erraztea**
- **Kultura asimilazioa**

A.- Gaia: EAEko talde minoritarioenganako jarrerak

A1.- Talde minoritarioenganako jarreraren dimentsioak


Deskribapena

Behin faktoreen azterketa faktoriala eginda, adierazteko ahalmen handiagoa duen zazpi dimentsio aukeratu dira eta, posible denean, Europako azterketan ateratakoekin konparatzen dira. Zazpi talde horiek aldagaiak ordenatzeko eta soziometroko A ataleko hainbat puntu antolatzeko erabili dira.

Dimentsio bakoitzari eman diogun izena Europako txostenean eman zaien izen bera izan da posible izanez gero (zazpi dimentsiorik nabarmen eta esanguratsuenen arteko seiren kasuan gertatu da hori), eta gure azterketako dimentsio espezifikoan, pisu gehien duten aldagaien esanahia islatzeko eta eduki komuna laburtzeko ahalegina egin da.

Zazpi dimentsio horiek azaldutako guztizko bariantza %35,657koa da. Ohikoa denez, proportzioa handiagoa izaten da lehenengo osagaietan (lehenengo faktoreak %13,443) eta txikiagoa azkenetan (zazpigarrenak %2,335).

Gutxiengoenganako jarrerak hoberen adierazteko zazpi dimentsio horiek zein diren esango dugu orain, bai eta horien osagai diren aldagaiak ere:



Lehenengo dimentsioa: Bizikidetzaren hobetzeko politika publikoak

Lehenengo talde horretan hainbat politikari buruzko jarrerak daude, erakunde publikoek politika horiek gauzatzeko balituzte, gure gizartean dauden taldeen artean harremanak hobeto liratekeen. Inplikazio pertsonal txikiagoa dakarren jarrerak dira ere bai.

1. Paper garrantzitsuagoa ematea arrazismoaren kontrako borrokan eskarmentua duten erakundeei.
2. Sindikatuak eta Eliza animatu, arrazakeriaren kontra gehiago egiteko.
3. Talde minoritario horiek gure herrialdeko bizitza politikoan parte hartzearen alde egitea.
4. Hainbat arraza, erlijio eta kulturako pertsonak bilduko dituen erakundeak sortzearen alde egitea.
5. Talde minoritarioen kontrako diskriminazio debekatzea.
6. Erreportaje inpartzialak bultzatzea prentsan, irratan eta telebistan. (Aldagai hori ez da Europako faktore baliokidean azaltzen).
7. Gure herrialdean hainbat kultura eta bizimoduaren arteko harreman onak bultzatzea.
8. Aukera berdintasunaren alde egitea gizarte bizitzaren alderdi guztietan.

Bigarren dimentsioa: Immigranteen onarpen mugatua

Bigarren faktore honetan munduko hainbat lekutik lan egitera datozen etorrera arautzeko neurriak eta jatorrizko lekuaren arabera jendeak eurekiko duen jarrera elkartzen dira. Ildo horretatik, honakoa galdetzen zen:

1. Europako ekialdeko herrialdeetako pertsonak Europako mendebaldean lan egin nahiez gero, murrizketarik gabe onartu behar direla, murrizketez onartu behar direla ala ez direla onartu behar pentsatzen duzu?
2. Eta, herrialde musulmanetik etorrira, hemen (Europar Batasunean) lan egin nahi duten pertsonak?
3. Eta barne gatazka larriak dituzten herrialdeetatik datozenak?
4. Eta euren herrialdean giza eskubideen urratzea pairatzen ari direlarik asilo politiko bila dabilzanak?
5. Eta, Europar Batasuneko beste herrialdeetatik etorrira, hemen gure herrialdean bizitzera etorri nahi duten pertsonak?

Hirugarren dimentsioa: Kultura anitzeko optimismoa

Europako txostenean horrela izendatzen dituzte faktore honetan elkartzen diren gizartean hainbat kultura izateagatiko jarrera positiboak. Erlijio, arraza eta nazionalitateen pluraltasuna aberasgarri, positibo eta gizartearentzako indagarritzat jotzen da.

1. Europar Batasunekoak ez diren pertsona immigranteek gure herrialdeko bizitza kulturala aberasten dute.

2. Arraza, erlijio edo kultura anitzak izateak gure herrialdearen indarra handitzen du.
3. Talde minoritario horietako pertsonak gure herrialdeko bizitza kulturala aberasten dute.
4. Edozein gizartearentzako ona da arraza, erlijio eta kultura ezberdinez osatuta egotea.

Laugarren dimentsioa: Eragozpenak

Bertan azaltzen dira beste arraza, erlijio edo kulturetako pertsonak -hemen jaiok badira ere-, bertan izateagatik soilik, sor ditzatekeen eragozpenei buruz galdetegiaren egiten ziren hiru galderak.

1. Molestatzen zaitu beste nazionalitateetako pertsonekin egoteak?
2. Eta molestatzen zaitu beste arrazetako pertsonekin egoteak?
3. Eta molestatzen zaitu beste erlijioetako pertsonekin egoteak?

Bosgarren dimentsioa: Errua gutxiengoel botatzea

Talde horretan gatazka sozialei eta lortutako maila ekonomikoa galtzeari beldurra adierazten dituzten jarrerak sartzen dira. Honako galderak biltzen ditu:

1. Talde minoritario horiek egoteak langabezia handitzen du gure herrialdean.

2. Talde minoritarioak egoteak segurtasunik eza eragiten du.
3. Europar Batasunekoak ez diren pertsona immigranteak populazioaren batez bestekoa baino sartuago daude delinkuentzian.
4. Talde minoritario horietako pertsonak gizarte laguntza gehiegi hartzen dituzte.
5. Agintariek pribilegiozko tratua ematen diete talde minoritario horietako pertsonari.

Selgarren dimentsioa: Sarrera erraztea

Familiak berriz elkartzearen alde, gure herrialdera lanera datozenen eskubideen alde, eta egoera legezko bihurtzearen eta populazioko beste pertsonetako berdintzearen alde egiten dutenen jarrerak osatzen dute dimentsio hori.

Dimentsio horren azterketa ezberdina izango da, Europako azterketan ez baita agertu eta EBko beste herrialde batzuetako konparaziozko daturik ez baitago.

1. Europar Batasunetik kanpoko eta legez kanpoko immigranteek seniderik gertuenak gure herrialdera ekartzeko eskubidea izan beharko lukete.
2. Europar Batasunetik kanpoko legezko immigranteek erraz lortu beharko lukete nazionalitatea.
3. Gure herrialdean errazago izan beharko lukete asilorako eskubidea.
4. Europar Batasunetik kanpoko legezko immigranteek beste herritarren eskubide berak izan beharko lituzkete.

Zazpigarren dimentsioa: Kultura asimilazioa

Datozenek euren kultura bertan behera uztea eta populazioaren gehiengoaren kultura bereganatzea nahi dutenen jarrerak daude talde horretan. Hiritarren arteko beste batzuk gure legeak errespetatzen ez dituzten jarduerak bertan behera uztea eskatzen dute.

1. Gure gizarteko eskubide osoko kide izateko, talde minoritario horietako pertsonak euren kultura bertan behera utzi beharko lukete.
2. Europar Batasunekoak ez diren immigranteak, gure gizarteko eskubide osoko kide izateko, bertan behera utzi behar dute euren kultura (aldagai hori ez da pareko faktore europarrean azaltzen).
3. Gure gizarteko eskubide osoko kide gisa onartuak izateko, talde minoritario horietako pertsonak gure legeak errespetatzen ez dituzten erlijio edo kultura jarduerak bertan behera utzi beharko lituzkete.

Behin dimentsio nagusiak deskribatuta, dimentsioak osatzen dituzten aldagaiak zein diren begiratu, hainbat kolektiboren erantzunak aztertu eta Europako beste herrialdeekin konparatuko ditugu.

Grafikoetan honako laburdurak erabiltzen dira hainbat herrialdeetarako:

LABURDURA	HERRIALDEA	LABURDURA	HERRIALDEA	LABURDURA	HERRIALDEA
A	Austria	F	Frantzia	L	Luxenburgo
B	Belgika	FIN	Finlandia	NL	Herbehereak
D	Alemania	GR	Grezia	P	Portugal
DK	Danimarka	I	Italia	S	Suedia
E	Espania	IRL	Irlanda	UK	Erresuma Batua
EU15 = Europar Batasuneko 15 herrialdeen batez bestekoa					

A - Gaia: EAEko talde minoritarioenganako jarrerak

A1 - Talde minoritarioenganako jarrearen dimentsioak

1. Bizikidetzaren hobetzeko politika publikoak

(GUZTIZKOAK, KOLEKTIBOKA, ETA GEOGRAFIKOKI KONPARATUTA)

Zure iritziz, zer egin beharko litzateke gure herrian arraza, erlijio edo kultura ezberdinetako pertsonen arteko harremanak hobetzeko?

1.- Arrazakariaren kontrako borrokan esperientzia duten erakundeei paper garrantzitsuagoa eman


	EAE SV OTs 03	IKASKETA MAILA				LANBIDE NAGUSIA					BEGIKOTASUN POLITIKOKA*										
		<LEHEN MAILAKOAK	LEHEN MAILAKOAK	BIGARREN MAILAKOAK	GOI MAILAKOAK	LAN ORDAINDUA	LANGA- BEZIA	ETXeko LANAK	IKASLEA	JUBILATUA	EAJ/ PNV	PP	PSE- EE	BATASUNA	EA	IU/EB	UA	ARALAR	INOR ERE EZ	DENAK	Ed/Ee
AIPATZEN DU.....	31	23	30	33	35	32	32	25	36	31	30	26	32	35	23	37	25	40	30	33	35
EZ DU AIPATZEN	65	71	65	64	63	65	66	69	62	65	66	72	65	62	74	60	75	55	68	60	59
Ed/Ee	4	6	5	2	3	4	2	6	2	4	4	2	3	3	3	3	0	5	3	7	6
(EHUNEKO BERTIKALAK).....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* UA ETA ARALAR ALDERDIEI DAGOKIEN KASU GUTXI DAGOENEZ IRAKURKETA KONTUZ EGIN BEHAR DA.

- EAE-N ELKARRIZKETATUTAKO HIRU PERTSONEN ARTEKO BATEK (%31) NEURRI HORREK TALDEEN ARTEKO HARREMANAK HOBE DITZAKETELA USTE DU.
- Goi mailako ikasketak dituztenek, ikasten ari direnek eta Aralar, Ezker Batua eta Batasuna alderdien jarraitzaileek aipatzen dute gehien.
- Europar Batasunean, bost herritarren arteko bat bakarrik dago ados arrazakeriaren kontra denbora daramaten erakundeei paper garrantziagoa ematearekin.
- EAEko populazioaren %31k aipatu dute neurri hori, Luxenburgo (%36) eta Suediaren (%34) atzetik, herrialde horiek EBko tasarik handienak baituzte.

Erakundeei paper garrantzitsuagoa eman

(Konparaketa geografiko)



A - Gaia: EAEko talde minoritarioenganako jarrerak

A1 - Talde minoritarioenganako jarreraren dimentsioak

1. Bizikidetzaren hobetzeko politika publikoak

(GUZTIZKOAK, KOLEKTIBOKA, ETA GEOGRAFIKOKI KONPARATUTA)

Zure iritziz, zer egin beharko litzateke gure herrian arraza, erlijio edo kultura ezberdinetako pertsonen arteko harremanak hobetzeko?


2.- Sindikatuak eta Eliza animatu, arrazakeriaren kontra gehiago egiteko

	EAE SV Ots 03	UDALERRIAREN TAMAINA			IKASKETA MAILA				EUSKARAREN JAKINTZA			POLITIKAREKIKO INTERESA				EZKER-ESKUIN ARDATZA			
		TXIKIA	ERTAINA	HIRIBURUA	<LEHEN MAILAKOAK	LEHEN MAILAKOAK	BIGARREN MAILAKOAK	GOI MAILAKOAK	Ez	PIXKA BAT	Bai	BATEREEZ	HANDIRIK EZ	NOLABAITERKOA	HANDIA	EZKERRA	ZENTROA	ESKUINA	Ed/EE
AIPATZEN DU	28	22	28	33	25	27	29	31	25	33	26	27	25	28	37	31	26	19	28
EZ DU AIPATZEN	68	72	69	65	69	68	69	66	72	64	68	69	72	69	59	66	71	79	67
Ed/EE	4	6	3	2	5	5	2	3	3	3	5	4	3	4	3	3	2	5	
(EHUNEKO BERTIKALAK)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	

- EAE-KO POPULAZIOAREN LAURDENA BAINO APUR BAT GEHIAGOK (%28) AIPATZEN DUTE NEURRI HORI.
- Zenbat eta handiagoa izan udalerria, ikasketa maila eta politikarekiko interesa, gehiago aipatzen da neurria.
- Proportzioa handiagoa da ere bai euskara pixka bat dakitenen eta euren burua ezkeriarren artean.
- EBN erantzun dutenen %22k sindikatuak eta Elizak arrazakeriaren kontra jardutea nahi dute. EAEko populazioak Luxenburgorekin, Finlandiarekin eta Suediarekin bat egiten du, hau da, jarduera hori gehien babesten duten herrialdeen artean dago.

Sindikatuak eta eliza animatu

(Konparaketa geografikoa)



A - Gaia: EAEko talde minoritarioenganako jarrerak

A1 - Talde minoritarioenganako jarreraren dimentsioak

1. Bizikidetzaren hobetzeko politika publikoak

(GUZTIZKOAK, KOLEKTIBOKA, ETA GEOGRAFIKOKI KONPARATUTA)

Zure iritziz, zer egin beharko litzateke gure herrian arraza, erlijio edo kultura ezberdinetako pertsonen arteko harremanak hobetzeko?


3.- Gure bizitza politikoan talde minoritarioetako pertsonen parte hartzea bultzatu

	EAE SV Ots 03	UDALERRIAREN TAMAINA			IKASKETA MAILA				EUSKARAREN JAKINTZA			POLITIKAREKIKO INTERESA			
		TXIKIA	ERTAINA	HIRIBURUA	<LEHEN MAILAKOAK	LEHEN MAILAKOAK	BIGARREN MAILAKOAK	GOI MAILAKOAK	Ez	PIXKA BAT	Bai	BATERE EZ	HANDIRK EZ	NOLABAITEKO	HANDIA
AIPATZEN DU.....	27	22	28	30	19	26	28	34	24	32	26	23	27	30	35
EZ DU AIPATZEN.....	68	71	68	67	74	68	69	64	72	64	69	71	70	66	60
Ed/EE.....	4	6	5	3	7	6	3	3	4	4	5	5	3	4	5
(EHUNEKO BERTIKALAK).....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

- EAE-N BIZI DIRENEN LAU PERTSONEN ARTEKO BATEK (%25) AIPATZEN DU NEURRI HORI.
- Neurri horrek babes handiagoa du hiriburuetan bizi direnen artean, goi mailako ikasketak dituztenen artean, euskara pixka bat dakitenen artean eta politikarekiko interes handia dutenen artean.
- EB guztian bost pertsonen arteko baten babesa dute (%21). Neurri horri dagokionez, EAE, Luxenburgo, Finlandia, Holanda, Alemania eta Erresuma Batuekin batera kokatzen da. Herrialde horien tasak %25 eta %29 bitartean daude, Europako hegoaldeko herrialdeetatik urrun (Espainia, Italia, Grezia eta Portugal).

Parte hartze politikoa bultzatu

(Konparaketa geografikoa)



A - Gaia: EAEko talde minoritarioenganako jarrerak

A1 - Talde minoritarioenganako jarreraren dimentsioak

1. Bizikidetzaren hobetzeko politika publikoak

(GUZTIZKOAK, KOLEKTIBOKA, ETA GEOGRAFIKOKI KONPARATUTA)

Zure iritziz, zer egin beharko litzateke gure herrian arraza, erlijio edo kultura ezberdinetako pertsonen arteko harremanak hobetzeko?


4.- Arraza, erlijio eta kultura ezberdinetako pertsonak biltzen dituen erakundeen sorrera bultzatzea

	EAE SV Ots 03	ADIN TALDEAK				UDALERRIAREN TAMAINA			IKASKETA MAILA			
		18-29	30-45	46-64	>=65	TXIKIA	ERTAINA	HIRIBURUA	<LEHEN MAILAKOAK	LEHEN MAILAKOAK	BIGARREN MAILAKOAK	GOI MAILAKOAK
AIPATZEN DU	36	42	38	34	29	30	36	40	24	34	38	42
EZ DU AIPATZEN	60	56	59	62	66	63	61	57	70	61	59	55
Ed/EE	4	3	3	4	6	6	3	3	6	5	3	3
(EHUNEKO BERTIKALAK)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

- EAE-KO BIZTANLEEN ARTEAN, %36K HAINBAT KULTURAKO PERTSONEK PARTE HARTZEN DUTEN ELKARTEAK SORTZEA BULTZATZEA TALDE MINORITARIOAK DISKRIMINATZEA GALARAZTEKO ONURAGARRIA IZAN DAITEKEELA USTE DU.
- Ideia horrek pertsona gazteenen artean, hiriburuetan bizi direnen artean eta goi mailako ikasketak dituztenen artean du arrakasta gehien.
- EAEn, Finlandian, Luxenburgon, Danimarkan, Italian eta Suedian bezala, populazioaren herena baino gehiago dago politika horren alde, Grezian, aldiz, %18 besterik ez, eta Portugalen %22.

Erakundeen sorrera bultzatu

(Konparaketa geografiko)



A - Gaia: EAEko talde minoritarioenganako jarrerak

A1 - Talde minoritarioenganako jarreraren dimentsioak

1. Bizikidetzaren hobetzeko politika publikoak

(GUZTIZKOAK, KOLEKTIBOKA, ETA GEOGRAFIKOKI KONPARATUTA)

Zure iritziz, zer egin beharko litzateke gure herrian arraza, erlijio edo kultura ezberdinetako pertsonen arteko harremanak hobetzeko?


5.- Talde minoritarioak diskriminatzea debekatu

	EAE SV Ots 03	UDALERRIAREN TAMAINA			IKASKETA MAILA				EZKER-ESKUIN ARDATZA			
		TXIKIA	ERTAINA	HIRIBURUA	<LEHEN MAILAKOAK	LEHEN MAILAKOAK	BIGARREN MAILAKOAK	GOI MAILAKOAK	EZKERRA	ZENTROA	ESKUINA	Ed/Ee
AIPATZEN DU	39	33	40	42	32	39	39	44	42	39	33	35
EZ DU AIPATZEN.....	58	62	58	57	63	58	59	55	55	60	65	60
Ed/Ee.....	3	5	2	2	5	4	2	1	2	2	2	5
(EHUNEKO BERTIKALAK).....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

